

GAIA:

HASIERAKO AGURRA

Jaun/Andre agurgarri (a) (hori)-(ak,ok)(horiek). [Formalagoa]

Jaun/Andre agurgarri (a)-(ak,ok). [Neutroa]

Adiskide (a) (hori)-(AK,OK) (HORIEK). [Adiskidekorragoa]

Horiez gain:

Jauna:, Andrea:, Jaunak:, Andreak:, Jaun/ Andreak:, Agur érdi

TESTUA

- **NORBERAREN AURKEZPENA, MEZUAREN ZERGATIA, HELBURUA...**

- **GUTUNAREN ENBORREKO HASIERAK**

Zure mezuari erantzunez

Gure elkarrizketan agindu nizun bezala

Mezu honen bidez... adieraziko dizut (adierazi nahi dizut)

...gaia aintzat hartuz.

...gaia gogora ekarriz

...gaia argitu nahian

Dakizunez

- **AZALPENA**

- **LANERAKO METODOLOGIAREN AZALPENA**

Zer urrats egin diren lana osatzeko azaldu.

- **LANAREN GAUZATZEA eta EMAITZA ESANGURATSUAK**

Lanaren emaitzak eta justifikaziorako eranskin moduan txertatzen denaren aipamena

- **ONDORIO edo PROPOSAMENEN KOMUNIKAZIOA**

Erantzuna errealitatean kokatu eta bat etortzea gutunak duen helburuarekin.

BUKAERA eta AGURRA

- **BUKAERAKO FORMULAK**

Eskerrak ematekoak

Aldez aurretik eskerrak emanez

Zure laguntza eskertuz

Har ezazu nire agur zintzoa, esker onarekin batera

Zerbait eskatu denean erabiltzekoak

Zuen berri laster izango dugulakoan

Zure erantzunaren zai geratzen naiz.

Nire eskaria kontutan hartuko duzuelakoan

Eskaintza egiterakoan

Zure esanetara nahi duzun guztirako

Informazioa emateko eskaintza

Beste edozien argibide nahi izango bazenu, jakinarazi, mesedez.

- **AZKEN AGURRA**

Adeitasunez, agur. / Begirunez, agur. [Formalagoa]

Horrenbestez, agur. / Besterik gabe, agur [Neutroa]

Agur, adiskide. / Agur bero bat. / Hurren arte./ Ondo izan eta ikusi arte. [Adiskidetsuagoa]

SINADURA ETA IGORLEAREN DATUAK

OHARRAK eta ERANSKINAK

Gutunari erantsi edo/eta estekatu beharreko informazio gehigarria txertatuko dugu.

Dbh 13_testu generoaren eredia: Emaila

Gaia: Europako Unibertsitate eskubaloi txapelketei buruzko informazio digitala

Ekintza Unibertsitate eskubaloi-elkarteko kide agurgarriak

Zuengana jotzen dut sare sozialen bitartez eskatu zenuten informazioa helarazteko. Gogoratuko duzue, Europako Unibertsitate eskubaloi txapelketei buruzko informazioa eskatu zenuten, ahal balitz euskarri digitalean, horrela guztientzat eskuragarri izan zedin.

Atsegin handiz jakinarazten dizuet eskatutako informazioa formatu digitalean prestatu dugula, eta honekin batera doakizula fitxategia, dagokion lekuan ezarri edo zabal dezazuen.

Informazioa eskubaloian adituek egin dute, eta, beraz, gaiari buruzko informazio osatua eta esanguratsua era erakargarrian biltzen du. Zuen jarduera eta proiektuetarako baliagarria izatea espero dut.

Zure esanetara naukazue edozein kontsulta edo iruzkin egiteko.

Adeitasunez,

Pello Etxeandia
Eskubaloiko Elkarte

ERANSKINAK

Hemen informazio euskarri desberdinak txertatuko lirateke

2018(e)ko Ekaina — 2019(e)ko Ekaina

Ingalaterrako Unibertsitate Eskubaloi

Txapelketa

Ingalaterrako Unibertsitate Eskubaloi Txapelketa herrialdeko unibertsitateetako taldeen arteko urteroko lehiaketa da. Denboraldi bakoitzean, taldeek liga batean lehiatzen dute, eta sailkatutako onenek playoffetara jotzen dute txapelketako irabazlea zehazteko. 2018-2019 denboraldian, University of East Anglia Handball Club (Norwich) izan zen irabazlea, University of Nottingham Handball Club-i irabazita finalean. Bi taldeen kirol bilakaera konparatuta, Nottinghameko taldeak aukera gehiago zituela zirudien, 2017-2018 eta 2016-2017 denboraldietan titulu bana lortu zituelako. Esan daiteke, University of East Anglia Handball Clubek ezustean harrapatu zituen guztiak 2018-2019ko txapelketa irabaztean, edozein taldek txapelketan bere aukera izan dezakeela erakutsiz.

2018(e)ko Ekaina — 2019(e)ko Ekaina

Frantziako Unibertsitate Eskubaloi

Txapelketa

Frantziako Unibertsitate Eskubaloi Txapelketa herrialdeko unibertsitateetako taldeen arteko urteroko lehiaketa da. Denboraldi bakoitzean, taldeek liga batean lehiatzen dute, eta sailkatutako onenek playoffetara jotzen dute txapelketako irabazlea zehazteko. 2018-2019 denboraldian Lilleko Unibertsitateak irabazi zuen Frantziako unibertsitate txapelketa, Montpellierreko Unibertsitateko eskubaloi taldeari irabazita.

Bi unibertsitateak konparatuta, Lilleko Unibertsitateak aparta dela erakutsi du azken denboraldietan eta azken hiru denboraldietatik bitan irabazi du txapelketa, aldiz Montpellierreko Unibertsitateko eskubaloi taldea ere oso talde arrakastatsua izan da azken urteetan eta azken lau denboraldietatik hirutan finalera iritsi da.

Beraz, esan dezakegu Lilleko Unibertsitateak irabazi badu ere, final interesgarri bat ikusteko aukera izan dutela zaletuak